

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2378

813/2025 EBAZPENA, maiatzaren 21ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Medikua kategorian (Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako FEM lanpostu funtzionala) Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistemaren bidez estatutupeko lotura finkoa lortu duten esleipendunen izendapena (eranskinean agertzen dira zein diren esleipendunak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022-Egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri orokorrak (2022ko abenduaren 19ko EHAA, 240. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1743/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Medikua kategorian (Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri espezifikoak (2022ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 20ko 346/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin ziren Medikua kategorian (Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako FEM lanpostu funtzionala) Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistemaren bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 31ko 561/2025 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeak gaitu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko deitutako 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEko hautaketa-prozesuetan esleitutako destinoaz jabetzeko izapideak egiteko.

Bat etorri Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoarekin, Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistema bidez hautatutako Medikua kategorian (Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako FEM lanpostu funtzionala) izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu duela eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu dela, zerrenda hori webgunean argitaratu zedin, langileen arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAn argitaratzeko agintzea Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistemaren eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla Medikua kategorian (Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiak esleitu zaien destinoko zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan jabetu beharko dira lanpostuaz Horretarako, izangaiek hitzordua eskatu beharko dute lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuaren nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, ezkontideaz zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko, eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikotan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dutela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, izangaiek lanpostuaz jabetzen badira, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, esleitu zaien zerbitzu sanitarioetako erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorren 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 21a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

2025eko ekainaren 2a, astelehena

ERANSKINA

2020-2021-2022 OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO EGONKORTZEA
 DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA
 F. E. KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIAKO M.
 TXANDA IREKIA LEHIAKETARAKO BLOKEA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitura	Hizkuntz eskakizuna	Data derrigorrezkoa
***6528**	Oncalada Calderon, Endika	Barakaldo-Sestaoko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / San Eloy Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak- Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2	
***8416**	Cortes Murie, Laura	Barakaldo-Sestaoko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / San Eloy Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak- Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2	
***1096**	Perez Macho, Iratxe	Barakaldo-Sestaoko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / San Eloy Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak- Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2	
***2944**	Gorostiga Perez, Naiara	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez 08:00-15:00- Guardiekin	2	2020-05-20
***4776**	Baguer Antonio, Alejandro	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez 08:00-15:00- Guardiekin	2	2022-10-18
***1172**	Ibor Ureña, Iker	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Guruzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	

2025eko ekainaren 2a, astelehena

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitura	Hizkuntz eskakizuna	Data derrigorrezkoa
***2751**	Corcuera Elosegui, Irene	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2	2022-10-18
***8242**	Martinez Gallardo, Jokin	Debagoieneko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Debagoieneko Ospitalea-Arrasate/Mondragon / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2	
***8044**	Cifuentes Lobato, Ana Maria	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Guardiekin	2	
***2566**	Lizundia Izaguirre, Aritz	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2	2022-10-18
***5684**	Martinez de La Liana, Oscar	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	
***5191**	Jauregui Garasa, Ainhoa	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	
***7435**	Larrea Ruiz, Amaia	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	

2025eko ekainaren 2a, astelehena

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitura	Hizkuntz eskakizuna	Data derrigorrezkoa
***7660**	Mugica Santibañez, Pedro Maria	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	
***4898**	Zurutuza Heras, Ignacio	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	
***8808**	Hernandez Tadeo, Miguel Angel	Bilbao-Basurtuko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	
***4173**	Diez Lopez, Lorea	Bilbao-Basurtuko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	2023-12-03
***8933**	Hernaiz Alzamora, Anna	Bilbao-Basurtuko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia-Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	